



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2017ko martxoaren 28a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Miriam Uranga Egurza, Jose Angel Iparragirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2016ko urriaren 25eko, azaroaren 29ko eta abenduaren 27ko ohiko bilkuretako akten zirriborroak.
- 2.- Onartzea, egoki bada, 2017-2018 ikasturterako Danbolin Musika Eskolako tarifak eta matrikula tasen murrizketen arautegia.



- 3.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2017ko Aurrekontu Orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal araua.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2017ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udala Gipuzkoako Lurralde Historikoko herritarren partaidetzarako erakunde arteko espaziora atxikitzea.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Jexux Mari Arriaranek ORIOKO GURE ESKU DAGO elkartearen izenean aurkeztutako mozioa, Orion 2017ko maiatzaren 7an herri galdeketa egiteari buruz, erabakitzeke eskubidearen gainean.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2016KO URRIAREN 25EKO, AZAROAREN 29KO ETA ABENDUAREN 27KO OHIKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork zirriborroen edukiari buruzko inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2016ko urriaren 25eko, azaroaren 29ko eta abenduaren 27ko ohiko bilkuretako aktak.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2017-2018 IKASTURTERAKO DANBOLIN MUSIKA ESKOLAKO TARIFAK ETA MATRIKULA TASEN MURRIZKETEN ARAUTEGIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2017ko martxoaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ),



Bello (EAJ) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzio botoak: Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu), Ubegun (EH Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain); guztira, **SEI ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 2017-2018 ikasturterako Danbolin Musika Eskolako tarifei eta matrikula tasen murrizketen arautegiari, segidan azaltzen diren terminotan:

4.3. Orioko Udal Musika eskolan egindako ikasketak

2017-18 ikasturtean aplikatuko diren tarifak honako hauek izango dira:

Tarifa bakarrak:

	Euroak
a) Musika mintzaira ikasleko	244
b) Instrumentu ikasgaia ikasleko (2. eta 3. mailan)	356
c) Musika tailerra ikasleko (1. mailan).....	178
d) Ikasketa osagarriak (3. mailan)	244
e) Bigarren instrumentua ikasleko (2. eta 3. mailan)	641
f) Euskal dantza ikasleko	244
g) Euskal dantza ikasleko (beste instrumentu batean ere matrikulatua egonez gero)	200
h) Musika instrumentuen alokairua (etxera eramanda)	114
i) Musika instrumentuen alokairua (musika eskolan)	65
j) Instrumentu taldea ikasleko	70
k) Instrumentu taldea ikasleko (beste asignatura batean ere matrikulatuta egonez gero)	Doan

TASA-MURRIZKETAK 2017-2018 IKASTURTEAN

- BALDINTZAK:

Murrizketak eskatzeko alde zurreko baldintzak hauek dira:

1.- Orion erroldatuta egotea 2017ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik.



2.- Udalarekiko zorrik ez izatea.

- MURRIZKETA ESKATZEKO ARRAZOIAK:

Murrizketak honako arrazoi hauetakoren batengatik eskatu daitezke:

1.- Diru-sarrerak taula honetako mugen artean izateagatik:

* Helbide berean bizi diren pertsonek kopurua:	+ Urteko diru-sarrera gordinak:
Pertsona 1	14.602 €
2 pertsona	17.852 €
3 pertsona	21.102 €
4 pertsona	24.352 €
5 pertsona	27.603 €
6 pertsona	30.846 €
7 pertsona	34.094 €

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Nortasun-agiriaren kopia.
- Familia-liburuaren kopia.
- Errenta aitorpenaren kopia (kide aktibo guztiena)
- Errolda agiria.
- Elkarbizitza agiria.

2.- Bestelakoak:

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Errenta aitorpena egitetik salbuesten duen agiria.
- Nortasun-agiriaren kopia.
- Familia-liburuaren kopia.
- Errolda agiria.
- Elkarbizitza agiria.



- MURRIZKETAK:

Behin Kultura, Hezkuntza eta Euskara batzorde informatzaileak eskaerak onartu ondoren, tasa-murrizketak hauek izango dira:

1.- Familiako diru-sarrerengatik: Matrikularen %50.

2.- Bestelakoak: %100.

OHARRA: Tasa-murrizketaren onura jasotzen duen ikasleak ondo aprobetxatu behar du ikasturtea. Hala ez balitz, hurrengo urtean ez zaio emango berririo eskatzen badu.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedienteak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduari 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiari argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, ez delako izenpetu hitzarmen bat Aiako Udalarekin, zehaztuko duena zenbateko ekarpen ekonomikoa egin behar duen Aiako Udalak Orioko musika eskolan ikasten duten Aiako ikasleengatik.

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza, Orain taldearen izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, Orioko musika eskolarako proposatu diren murrizketen araudia ez datorrelako bat Udalak gainontzeko ordenantza fiskaletarako onartutako hobari eta diru-laguntzen araudi orokorrarekin.



Adierazten du, hortaz, bere talde politikoaren ustez, murrizketen araudi hori berraztertutako egin beharko litzatekeela eta irizpide berdinak aplikatu ordenantza fiskal guztietan.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2017KO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL ARAUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Aurrekontuaren eta horren exekuzioari buruzko udal arauaren berri jasotzeaz gain, udalbatzarrak beste bi dokumentu hauen berri ere jasotzen du: idazkari-kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzko txostena, eta Orioko Udalak ematen dituen diru-laguntzen erregimen juridikoa arautzen duen udal ordenantza.

Emeterio Iribar, Miriam Uranga eta Ana Priede zinegotziek —EH Bildu, Orain eta PSE-EE-PSOE talde politikoaren bozeramaile gisa, hurrenez hurren— honako zuzenketak aurkeztu dizkiote 2017ko udal aurrekontuaren proiektuari:

1.- Alkatearen dedikazio eskusiboaren ordainsari-maila ordainsari orokorren 24. mailan ezartzea eta, horren ondorioz, 0100.101.01.912.00 partida (udalbatzarkideen ordainsariak) gutxitzea.

2.- Obra, Zerbitzuak, Hezkuntza eta Euskara batzordeko buruaren dedikazio partziala %25ean ezartzea eta, horren ondorioz, 0100.101.01.912.00 partida (udalbatzarkideen ordainsariak) gutxitzea.

3.- Goian aipatutako partidaren gutxitutako diru-kopuru horiek honako aurrekontu-partidak handitzera bideratzea:

- 0201.601.02.133.50 partida (bide-seinaleak, 'gune beltzak') handitzea: 7.000 eurotik 10.000 eurora.
- 0803.481.04.231.60 partida (Gizarte Ongizatea, bestelako laguntzak) handitzea: 5.000 eurotik 8.000 eurora.
- 1002.226.06.432.40 partida (Turismoa, Jarduera soziokulturalak) handitzea: 10.000 eurotik 18.000 eurora. 8.000 euroko gehikuntza hori BIGA proiektura bideratzea osorik.
- Gainerako diru-kopurua 0401.210.01.153.21 partida (Bide publikoen mantenimendua: espaloiak eta asfaltatze-lanak) handitzera bideratzea.



- Udal Liburutegiko inbertsioen kapitulua berraztertzea eta ordenagailuak erosteko partida handitzea, bi ordenagailu berri erosteko: bat musika eskolarako eta bestea kultur etxerako.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2017ko martxoaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu), Ubegun (EH Bildu), Uranga (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Zaldua (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Salsamendi (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ) eta Bello (EAJ); guztira, **SEI KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA Emeterio Iribar (EH Bildu), Miriam Uranga (Orain) eta Ana Priede (PSE-EE-PSOE) zinegotziek, beren talde politikoen bozeramaile gisa, 2017ko udal aurrekontu proiektuari aurkeztutako zuzenketak, goian jasota dauden bezala.

Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du, batetik, BIGA proiektuak izaera pribatua duela eta Zarauzko Udala gaia Urola Kostako Udal Elkartearen eskuetan uztearen alde agertu dela eta, bestetik, Zumaiaiko Udalak zalantzak dituela BIGA proiektua gauzatzeko moduari buruz.

Miriam Uranga zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak ez daukala inolako eragozpenik onartu berri den 1002.226.06.432.40 aurrekontu-partidako 8.000 euroko gehikuntza hori beste proiektu batera bideratzeko.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2017ko martxoaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2017ko Aurrekontu Orokorrari, bilkura honetan onartutako zuzenketak sartuta. Aurrekontuaren laburpena, kapituluka, honako hau da:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTU PROPIOA Sarrerren egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	1.255.550
2	Zeharkako zergak	20.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.880.378
4	Transferentzia arruntak	3.885.467
5	Ondarezko diru-sarrerak	131.186



6	Inbertsio errealeen besterentzea	0
7	Kapital transferentziak	63.419
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		7.236.000

Gastuen egoera

Kapituluak	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	3.024.548
2	Ondasun arrunten erosketak	2.751.243
3	Finantzaketa gastuak	0
4	Transferentzia arruntak	1.189.792
6	Inbertsio errealak	270.417
7	Kapital transferentziak	0
8	Finantza aktiboak	0
9	Finantza pasiboak	0
GUZTIRA		7.236.000

2.- ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioa exekutatzeko udal araua, 2017. urteari dagokiona, Udalak ematen dituen diru-laguntzen erregimen juridikoa arautzen duen ordenantza orokorrari buruzko eranskinarekin.

3.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udaleko 2017ko aurrekontu orokorra, aurrekontu propioa biltzen duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; jendaurrean jartzea honako arauen arabera egiten da:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteke epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.



d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera erregistroa, bulego orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2017KO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERREDA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2017ko martxoaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

1.- ONARTZEA Orioko Udalaren 2017ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

2.- ARGITARATZEA plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden legez xedapenen testuategia onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALA GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko Udalak herritarren parte-hartzea bultzatu nahi du herriari dagozkion erabakietan. Pauso batzuk emanak ditu bide horretan eta orain gehiago eman nahi ditu, inguruko beste herri batzuetan irekitako lan-ildoari segituz.



Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazio bat sortzeari buruzko Foru Dekretua onartu du ondoko helburuekin (2. artikulua):

- a) Sare bat edo erakunde arteko topaketa espazio bat eratzea Lurralde Historikoko maila anitzeko gobernuen ikuspegitik, batik bat, foru gobernuaren eta tokiko gobernuen ikuspegitik, eta horren helburua herritarren partaidetzarako politikak sustatzea izango da, herritarren eta erakundeen arteko erlazioak indartu daitezen.
- b) Herritarren partaidetzaren arloko erakundeen esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko espazio bat ezartzea, alor horretako elkarrekiko ikaskuntzako erakunde-komunitatea eta hobekuntza instituzionala sustatuta.
- c) Laguntza eta lankidetzak teknikorako bideak hedatzea Espazioan dauden erakundeek betebeharrak arauemaileak egikaritzeko, araudiak eta ordenantzak onartzeko eta herritarren partaidetzarako metodologiak, prozesuak eta tresnak martxan jartzeko.
- d) Herritarren Partaidetzako alorrean Foru Aldundiaren diru laguntzen politika zehazten laguntzeko tresna izatea.
- e) Prestakuntza programak eta jardunaldi espezializatuak sustatzea, baldin eta zeharkako alor honetan eskuduntzak dituzten kargu publiko adierazgarrien eskumen instituzionalak indartzen badituzte eta herritarren partaidetzaren alorreko foru eta udal zuzendari eta teknikarien gaitasun profesionalak garatzen badituzte.

Udal honen nahia Espazio horren parte izatea da eta udalbatzarrari proposatzen zaio atxikipen adierazpen hau onartzea.

Aipatutako Foru Dekretuak Hirugarren Xedapen Gehigarrian zehazten duen bezala, atxikipen honek bere gain konpromisoa hartzea eskatzen dio Udalari.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]:

1.- ATXIKITZEA Orioko Udala Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari.

2.- BERE GAIN HARTZEA Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromiso hauek:



- a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
- b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
- c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
- d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
- e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.
- g) Espazioaren aurrekontuak ezagutzea eta, behar bada, gai horren inguruan eztabaidatzea organo edo egitura eskudunen bitartez.
- h) Partaidetza alorrean Foru Aldundiak burutuko dituen laguntza tekniko eta lankidetzako prozesuetan udalei eta tokiko erakundeei laguntza ematea, arazoak edo gai irekiak behar bezala identifikatzeko, erregelamendu nahiz ordenantza-tipoak eta proposatutako gida metodologikoak sustatzeko, eta herritarren partaidetzako tokiko politikak hobetzera bideratutako Espazioaren beste edozein ekimen bultzatzeko.
- i) Espazioa dinamizatzea egungo egituren bidez, eta foro teknikoak koordinatzea, hala behar bada.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari erabaki honen **BERRI EMATEA.**

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, JEXUX MARI ARRIARAN EK OROKO GURE ESKU DAGO ELKARTEAREN IZENEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA, ORION 2017KO MAIATZAREN 7AN HERRI GALDEKETA EGITEARI BURUZ, ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN GAINEAN.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN HERRI-GALDEKETA ORION

Gure Esku Dago (GED) erabakitzeko eskubidearen aldeko herri dinamika oinarritzko hiru printzipioetan antolatua dago:

- 1) Herri bat gara.*
- 2) Erabakitze eskubidea dugu.*
- 3) Herritarren garaia da.*

Euskal Herri mailako ekitaldiak antolatu izan ditu: 2014an Durango eta Iruñea arteko giza katea eta 2015ean Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta Baionan hautestontzi erraldoiak eraiki herriz herri bildutako oihal zatiak josiz.

2016an gertutasunera jauzi bat eman zuen eta herrietan galdeketak antolatzeko lanari heldu zion. Burujabetzaren inguruan herritarren iritzia ematea ahalbidetuko duen galdeketa antolatzeko "Baliza - Gizartearen Partehartzea Sustatzeko Elkarte" sortu da Orion.

Galdeketa 2017ko maiatzaren 7an egingo da Urola Kosta eskualdeko Zarautz, Azkoitia, Zumaia, Orio, Zestoa, Getaria, Aizarnazabal eta Errezil herrietan. Galdera honi erantzun zaien: "Nahi al duzu izan euskal estatu burujabe bateko herritar?". Herri galdeketa ahalik eta herritar gehienek parte hartzea da helburua eta horretarako 16 urtetik gorakoak daude deituta.

Zarautzen 2016ko abenduaren 16an eskualdeko aurkezpenean adierazi zen bezala, "Erabakitzeko egiten gaitu libre" / "Gaur egungo estatus politikoak ez ditu gure beharrak asetzen" / "Kezka ugari ditugu, baina inork ez digu haien inguruan galdetzen" "Euskal Herrian, gehiengoak eskatzen du aldaketa" / "Pertsona adina proposamen daude baina bada gauza bat guztiok elkartzen gaituena: aldaketarako nahia" / "Herri gisa aldaketa hori eskatzeko eskubidea daukagu, aldaketa hori nolakoa izango den erabakitzekoa eta oraintxe da horretarako mementoa".

Orioko Udala osatzen duten lau talde politikoekin elkartu gara herrian galdeketa egiteko emango diren ekitaldiak eta jardunak azaltzeko asmoz. Mozio honekin Udalbatzarrari zera eskatu nahi zaio: ekitaldi eta jardun horiekin bat egin eta babes dezala 2017ko maiatzaren 7ko herri-galdeketa.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



ONARTZEA, goian jasota dagoen bezalaxe, Jexux Mari Arriaranek ORIOKO GURE ESKU DAGO elkartearen izenean aurkeztutako mozioa, Orion 2017ko maiatzaren 7an herri galdeketa egiteari buruz erabakitzeke eskubidearen gainean.

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSOE talde politikoaren izenean, eta adierazten du nabarmena izan dela alkateak 2017ko udal aurrekontuan lantzerakoan erakutsi duen ganora falta, EH Bildu eta Orain talde politikoek ere ikusi dutena; eta horregatik aurkeztu dizkietela bi zuzenketa aurrekontuari: bata alkatearen liberazioaren ordainsari-maila 28. mailatik 24.era jaisteko eta bestea Obra, Zerbitzu, Hezkuntza eta Euskara batzordeko buruaren dedikazio partziala %50etik %25era jaisteko.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bildu talde politikoaren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak bat egiten duela guztiz Ana Priedek esandakoarekin eta uste duela alkateak azken urte honetan udal aurrekontua lantzeko sinesgarritasun falta izugarria erakutsi duela.

Aipamenengatik, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du 2017ko udal aurrekontuaren proiektua otsailerako prest zegoela eta, nahiz eta EH Bildu, Orain eta PSE-EE-PSOE talde politikoek trabak jarri dituzten, udal aurrekontuak aho batez onartu direla. Adierazten du, baita ere, EAJ talde politikoak, aurrerantzean, gogor egingo duela lan Oriko herriaren mesedetan.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,